

**2016-17 Ri8era**  
**ikerketa-bekak**  
**Gizarte Zientziak eta Artea sustatzeko bekak subjektibitate**  
**berriak eraikitzeko**  
**Eraldaketarako cultura**  
**DEIALDIA**

## **1.- AURREKONTU KREDITUA**

Laguntzak 2014ko ekitaldiko Udal Aurrekontuko 1.0510.481.01.334.30 kontu-sailearen kargura emango dira, gehienez ere 18.000,00 €-raino. Era berean, aurrekontuaren gaitako organo eskudunak behar diren kredituak erreserbatuko ditu eragina izango duten etorkizuneko ekitaldietako aurrekontuetan.

## **2.- DOKUMENTAZIOA ETA AURKEZTEKO EPEA**

### **Dokumentazioa:**

Ondorengo dokumentazioa gehitu beharko zaie eskaerei:

- Ikerkuntza-proiektuaren txosten-laburpena (gehienez 20 orri); bertan azaldu beharko dituzte izenburua, ikerketa-kontzeptua eta gaia, proiektuaren oinarritzko gida-lerroa, helburuak, metodologia, kronograma eta baliabideak.
- Testu-memoriak gainera, bereziki baloratuko da proposamenari laguntzen dion erantsitako ikusizko material oro (irudiak, bideoak, bozetoak eta edozein motatako material erantsia).
- Berriazko proiektua egikaritzeko denboren kronograma bat.
- Portfolio moduan egindako arte-proiektu edo proposamenen memoria bat.

Proiektuaren bi kopia paperean aurkeztu behar dira, eta beste bat gehiago euskarri digitalean.

- Beste gutun-azal batean:

- ✓ izenburua, eskatzailearen harremanetarako datuak, NANaren edo AIZren fotokopia eta eskatzailearen curriculum labur bat
- ✓ eskatzaile-taldeko kideen erantzukizunpeko adierazpena, beka jasotzeko ez duela azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13.2 artikulua jarritako batera debekurik diona
- ✓ eskatzaile-taldeko kideen erantzukizunpeko adierazpena, zerga bidezko betebeharrak (Foru Ogasuna edo Udalaren Zerga Biltegia) eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dauzkatala diona
- ✓ eskatzaile-taldeko kideen erantzukizunpeko adierazpena, zera dionea: helburu eta asmo horretarako bererako ez diola ezeren diru-laguntza, laguntza, beka, sarrera edo baliabiderik eskatu inolako administrazio publiko edo erakunde publiko nahiz pribaturi
- ✓ baimena, eskatzaile-taldea beka hori kudeatzen duen organoari emana, beka eskatu duten pertsonen identitateak jakiteko eta haiek beka eskuratzeko baldintzak betetzen dituztela egiaztatze bidea izan dezan organo horrek dagokion administrazioan, dela baliabide elektronikoez, dela eskuera diren beste baliabide batzuek, administrazio publikoak dituen beste egiaztatze, kontrol eta ikuskatze eskumen batzuk eragotzi gabe horregatik.

Beka eskabideak erabat bete gabe edo erantsi beharreko agiri guztiak erantsi gabe aurkeztuz gero, falta diren agiriak aurkezteko edo den akatsa zuzentzeko eskatuko dio Irungo Udalak dena eskatzailei. Horretarako, hamar egun emango dizkie, gorabehera hori jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, eta ohartaraziko die, orobat, hala egiten ez badu eskaerari uko egin diola joko duela, 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 42. artikuluan agintzen duen eran ebatzi eta gero hori.

#### **Aurkezteko epea:**

Eskabideak hilabete bateko epean jaso beharko dira deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik aurrera kontatuta.

#### **Aurkezteko lekua:**

HAZ Herritarrarentzako Arreta Zerbitzua (San Martzial kalea 2) A/O 08:30-14:00, L 09:30-13:00. Horretarako, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1993 Legean adierazitako bideak erabil daitezke.

Gutun-azalean, gaia zehaztuko da: **2016-17 RI8ERA beka**.

### **3.- HIZKUNTZA**

Eskabideak EAEko bi hizkuntza ofizialetatik edozeinetan aurkeztu ahal izango dira aukeratu ahal izango da.

#### **4.- PUBLIZITATEA**

Deialdi hau, oinarri arautzaileak eta horien babesean emandako bekak argitaratuko dira [www.irun.org](http://www.irun.org) udal web orrian, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 9.3 artikulua araberak eta Diru-Laguntzen Datu-Base Nazionalan (DDN), aipaturiko Legearen 18. eta 20. artikuluen arabera

#### **5.- GAINERAKO BETE-BEHARRAK**

Azaroaren 17ko diru-laguntzen 2003/38. lege orokorraren 23. artikuluan aipaturiko gainerako bete-beharrak begietsita daude beken oinarrietan.

Irunen, 2016ko irailaren 29an